



**PREMIOS DE ARQUITECTURA COAVN 2016**  
**2016KO EHAEO ARKITEKTURA SARIAK**

Arquitectura  
Arkitektura

Premio  
Saria

Centro Superior de Música del  
País Vasco. Musikene  
Euskadiko Goi-mailako Musika  
Zentroa. Musikene  
Donostia - San Sebastián

Asier Atxurra de Blas  
Aitor Gurtubay Galligo  
Unai Zelaieta Garate

Un rotundo volumen oscuro que al tallarlo descubre un interior brillante y luminoso que se proyecta sobre la ciudad.

Este edificio esculpido surge de dar respuesta a un denso y compartimentado programa de necesidades en un solar encorsetado. Esta situación nos condiciona a disponer del volumen máximo permitido por la normativa municipal y a estirar al máximo la superficie de fachada para conseguir iluminar todos y cada uno de los espacios que alberga.

De esta necesidad nace la distinción formal del edificio. Tres grandes incisiones tallan la pieza compacta mediante unos cortes limpios y rectos, que a modo de pantallas acústicas muestran el brillo interior del edificio a la ciudad.

Se ha potenciado el contraste entre fachadas. La piel exterior del edificio de forra de chapa lisa lacada en negro brillante. En los patios esa chapa es dorada y envuelve a los huecos de la fachada. Se trata de unas bandejas de aluminio perforadas para permitir el paso de la luz, y estampadas para reflejar la luz de sol. Los materiales evocan el material de acabado de instrumentos musicales.

El edificio rodea una valiosa pieza en su interior. El auditorio. Este se configura como corazón del edificio. Se trata de un corazón dorado que protagoniza los espacios más importantes del edificio.

El resultado es un edificio que consigue dar respuesta a las necesidades de uso específicas y de representatividad de musikene, materializado con un presupuesto ajustado, y en una ciudad muy identificada con la música, la cultura y la educación, como es Donostia - San Sebastián.



Bolumen sendo iluna, zizelkatzean hiri gainean proiektatzen den barnealde distiratsua eta argitsua azaltzen duena.

Eraikin zizelkatu horrek orube zurrun batek zituen beharren programa trinko eta tokibanatu bati irtenbidea eman nahi zion. Egoerak udal-araudiak onartutako gehienezko bolumena errespetatzera behartu gaitu, eta, hala, fatxadaren gainazala ahalik eta gehien aprobetxatu da, hartzen dituen eremu guztiak argiztatzeko.

Behar horretatik sortu da eraikinaren forma bereizgarria. Hiru ebakidura handik pieza trinkoa zizelkatzen dute, pantaila akustikoak bailiran hiriarri eraikinaren barneko distira erakusten dioten ebakidura garbi eta zuzen batzuen bidez.

Fatxaden arteko kontrastea azpimarratu da. Eraikinaren kanpo-azala xafla leun batekin estalita dago, beltz distiratsuan lakatuta. Patioetan xafla hori urre-kolorekoa da, eta fatxadaren baoak inguratzen ditu. Aluminiozko erretiluak dira, zulatuta daude argia igaro dadin, eta estanpatuta ere bai, eguzki-argia islatzeko. Materialelek musika-tresnen akaberen materiala gogorarazten digute.

Eraikinak pieza baliotsua inguratzen du barnealdean. Entzunaretoa. Eraikinaren bihotza da. Urre-koloreko bihotz hori da eraikinaren eremu garrantzitsuenen protagonista.

Emaitza Musikeneren erabilera zehatzen eta adierazgarritasunaren beharrei erantzuna ematen dion eraikin bat da, aurrekontu doi batekin gauzatua, musikarekin, kulturarekin eta hezkuntzarekin asko identifikatzen den hiriburu batean, hots, Donostian.









